

Kataluniaren argitan

Jakin gabe ere zer gertatuko den (urriaren 22an ari naiz artikulu hau idazten), hainbat kontu argi daude Kataluniaren aferaren inguruan. Besteak beste, hauek:

Lehen: Kataluniak, independentzia lortu ala ez, irabazita dauka independentea izateko eskubidea. Kataluniako erakunde eta herritarrek aski eta soberra frogatu dute gauza direla herri gisa antolatzeko –aspaldidanik independenteak diren herrialde anitz baino neurri handiagoan–.

Badakite borrokatzen indarkeriari heldu gabe eta, ahal heinean, lasaiki, eta trebe ari dira malgu eta tinko jokatzeko aldi berean, desadostasunak tresna politiko bihurtzen, espontaneotasuna eta plangintza uztartzen unean-uneke beharrei erantzuteko, uko egin gabe, daukaten bide malkartsuan, ez umoreari, ez aniztasunari, ez beti harrotasun izan duten kultur atxikimenduari.

Bigarrena: Espainia deitzen den Estatuak jarduteko modu nagusi bat baino ez omen du ezagutzen, familia batean kideak berari halabeharrez atxikita eduki nahi dituenaren antzera, zigorraren keinadaz gain ezer eskaini gabe, beti atzerantz tiraka, uzkur eta zurrun ezein negoziazioaren aurrean. Historiari begiratuta, deigarria da ez



Inma Errea

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

@inmaerrea

Ez gara ibili fin, herri gisa, katalanek aspaldi hasitako bidez garaiz ohartzeko. Gutako anitz berandu samar jabetu dira hango errealitateaz. Baina iritsi da garaia elkartasun-ekimen eraginkorragoei heltzeko

ohartzea bide hori antzua dela, goizago edo beranduago huts egingen diola, eta sufrimendua eta ezinegona besterik ez duela eragiten.

Hirugarrena: agerian gelditu da, berri ere, Europa deitzen dugun herrialde-multzoaren benetako izaera. Ez da

lehen aldia, azken urteotan adibide ugari ikusi baititugu: Grezia, errefuxiatuen krisia eta, orain, Katalunia. Lekutan dago egun nozitzen ari garen Europako antolamendu lukur eta interesatua –gauzak dauden-daudenean utzi baino nahi ez duena, gutxi batzuen mesedetan– saldu ziguten amets europar goxo eta utopiko hartatik –non demokraziaren ontasun eta giza eskubideek orok bat egin behar baitzuten–.

Laugarrena: Eskergarria da katalanen jardunak beste gauza asko agerian utzi izana, eta horien artean, Euskal Herrian jada ezagun genituen batzuk, hala nola giza eskubideen eta demokraziaren inguruan Espainian (eta European...) dauden gabezia handiak eta uste aizun askoak.

Eta bosgarrena: ez gara ibili fin, herri gisa, katalanek aspaldi hasitako bidez garaiz ohartzeko. Gutako anitz berandu samar jabetu dira hango errealitateaz –zoritarrez, anitzek Madrilgo ikuspegia nagusi duten iturrietatik baino ez dute edaten–. Baina iritsi da garaia elkartasun-ekimen eraginkorragoei heltzeko. Beren burua abertzale edota aurrerakoitzat duten euskal alderdiek ez lukete utzi beharko Katalunia bakartuta inongo lege-atakatan, eta Kataluniaren alde jardun beharko lukete. Katalanen antzera, era baketsuan baina tinko. ■



B
Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus